



Laneko Osasunaren Informazio Buletina


82 alea / 2022ko apirila

Berritasunak

JORNADAS DE SENSIBILIZACIÓN/ SENTSIBILIZAZIO JARDUNALDIAK		
TUDELA/ TUTERA	Mancomunidad de la Ribera Erriberako Mankomunitatea	1 abril/ Apirilak 1 9:00 – 11:00
OLITE/ ERIBERRI	EVENA	8 abril/ Apirilak 8 9:00 – 11:00
ESTELLA/ LIZARRA	Mancomunidad de Montejurra Jurrarendiko Mankomunitatea	29 abril/ Apirilak 29 9:00 – 11:00
PAMPLONA/ IRUÑA	UPNA/ NUP	6 mayo/ Maiatzak 6 9:00 – 11:00
SANGÜESA/ ZANGOZA	Palacio Valdesantoro Valdesantoro Jauregia	13 mayo/ Maiatzak 13 10:00 – 12:00
OIEREGI	Palacio de Bertiz Bertizko Jauregia	03 junio/ Ekainak 3 12:00 – 14:00
MUGIRO	Ayuntamiento de Larraun Larraungo Udala	10 junio/ Ekainak 10 12:00 – 14:00
EZCÁROZ/ EZKAROZE	Junta del Valle de Salazar Zaraitzuko Ibxaren Batzorde Orokorra	17 junio/ Ekainak 17 12:00 – 14:00

Sentsibilizazio jardunaldiak - EZ IRAULI ZURE BIZITZA kanpaina. Traktorea iraultzearen ondoriozko istripuak prebenitzeko egiten ari den *Zure bizitza, iraultetarik gabe* kanpainaren barrenean, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI), Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarekin lankidetzan, zortzi sentsibilizazio jardunaldi antolatu ditu Nafarroako nekazaritza eskualdeetan. Saioak apiriletik ekainera bitartean eginen dira, eta nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean traktorea erabili ohi duten pertsonentzat dira. Sarrera doan da, eta ez da beharrezkoa aldeztu izena ematea.

Jardunaldien programazioa



Apirilaren 28a: Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Eguna. *Ari gaitzen elkarrekin* da Lanaren Nazioarteko Erakundeak aukeratu duen leloa aurtengo **Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Egunerako**; heldu den apirilaren 28an izanen da. Egun horrekin, urtero aldarrikatzen da lan segurua, osasungarria eta duina, eta laneko istripu eta eritasunen biktimak omentzen dira; aurtan, parte hartzea eta elkarriketa soziala izanen ditu ardatz. Helburuarekin bat egiten du NOPLOIk: alegia, aurrera egitea segurtasunaren eta osasunaren kultura positiboaren eraikuntzan.

Argibide gehiago

Nabarmendua

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, martxoan zehar, sentsibilizazio plan hau sustatu du: **“Langile soziosanitarioek gihar-hezurretako nahasmendurik izan ez dezaten”**. Plan hori sektore horretako langileei, enpresaburuei eta

prebentziorako zerbitzuei zuzendua dago. Kanpainaren helburua da gihar-hezurretako nahasmenduak saihestea horiek bereziki pairatzen dituzten eremuan, eta pertsonen mobilizazio eta transferentzia egokiaren garrantziaz sentsibilizatzea. Plan honetarako berariaz sortutako webgunean, ukitutako kolektibo guztientzat erabilgarria den materiala aurki daiteke.

CUÍDATE
PARA CUIDAR
MEJOR

Por un personal socio sanitario
sin Trastornos MusculoEsqueléticos



#sinTrastornosMusculoEsqueleticos

#GiharHezurretakoNahasmendurikGabe



GAINBEGIRATZEA

Osasuna aktibo bat da. Laneko arriskuen prebentzioa enpresak kudeatzeko sistema integralaren funtsezko zatitzat hartu behar da. Sistema horretan, eta enpresaren jardueran betetzen duten funtzioaren garrantzia kontuan hartuta, erdi mailako kargudunek prebentzioko eragile aktiboak izan behar dute eguneroko gainbegiratze lanean.

Prebentzioari buruzko prestakuntza ekintzak, beste erakunde batzuekin lankidetzan. Martxoan, NOPLOiko teknikariek laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza espezifiko eman dute beste erakunde batzuetan. Traktorea iraultzearen ondoriozko istripuak prebenitzea izan zen Nekazaritza eta Basogintzako IIn eta Azkoiengo Nekazaritza Eskolan egindako lau saioetako gaia. Gainera, beste informazio saio bat egin zen Iruñeko udaltzaintzat, lan istripuetako laguntzarekin zerikusia duten zerbitzuetan jarduteko jarraibideei eta irizpideei buruz.



Berriak

- [Muere un vecino de Berriozar de 39 años en un accidente laboral en Lakuntza](#)
- [Información sobre las políticas y las prácticas de seguridad y salud en el trabajo relacionado con las plataformas digitales.](#) EU-OSHA
- [Los nuevos riesgos laborales de los empleos verdes.](#) Diario de Navarra
- [BSH llega a un acuerdo con la familia de un extrabajador de Agni \(Estella\) fallecido por amianto](#) Diario de Noticias
- [Las bajas laborales por salud mental suben un 25% en 2021.](#) Diario de Noticias
- [El sector agrario, uno de los sectores que registra más accidentes laborales graves en España](#) Prevención Integral

Agenda



Jardunaldia
**LANBIDE- ORIENTAZIO INTEGRATUA ELKARLANEKO
IKUSPEGI BATETIK**
BHI Navarra Villoslada- Apirilaren 7a

- Programa
- Izen-emateak



Jardunaldia
**PRODUKTU FITOSANITARIOAK BILTEGIRATZEA.
ERREGE DEKRETU BERRIA 285/2021**
Apirilaren 26a

- Programa
- Izen-emateak



Sinposio
II GARBITASUN INDUSTRIALAREN SINPOSIA
Santander – Maiatzaren 19a eta 20a


- Programa
- Izen-emateak




Mintegia
ISTRIPU-ARRISKUAREN EBALUAZIOA. OINARRIAK
Bartzelona – Maiatzaren 27a

- Programa
 - Izen-emateak
-

Argitalpen digitalak



Guía práctica para implantar un programa de promoción de la salud en el trabajo en las organizaciones
INVASSAT-UMIVALE



La protección judicial en materia de acoso en el trabajo en el horizonte del convenio 190 OIT.
Observatorio Vasco sobre Acoso y Discriminación



Informe de siniestralidad en la industria de la alimentación
INSST



Los cuidados en el trabajo
OIT



Plan estratégico del Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo 2022-2026
INSST

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektronikoa honetara: ispn.ufii@navarra.es



ARGITARATZAILEA:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Landabengo industrialdea, E eta F kaleak, 31012 Iruña)
☎ 848 423 771
Edizio-formatua: fitxategi elektronikoa. 2022ko apirila